

Sagardotegietan bideo didaktiko bat egongo da salgai aurrerantzean

FELIX IBARGUTXI
DV. ASTIGARRAGA

Astigarragako 'Zipotza' kultur elkarteak bideo bat burutu du 'Astigarraga eta sagardoa' izenekoa, lantegi honetako pauso guztiak erakusten dituena.

Sagardotegietan egongo da salgai bideo hau. Baita Zipotza elkartearen bertan ere. Herenegun egindako aurkezpenean azaldu zuten, irudi guztiak Astigarragan burutu dira, baina grabazioak Euskal Herri osorako balio du.

Modu didaktikoan, sagardo egiteko eman beharreko pauso guztiak azaltzen dira bertan: hasi arbola loratzen denetik, sagardoa edaten den arte.

Orain bi urte hasi ziren Zipotza



Herenegun aurkeztu zen bideoa Astigarragan./MIKEL

elkartekoak lana egin nahian. Profesionalak ez direnez, sagardogintzako zenbait prozesu grabatzeko itxoin egin behar izan dute. «Pau-

so guztiak bere garaian grabatu genituen. Horrek denbora esan nahi du. Gainera, azkenean irudiak zein baino zein ederragoak

atera zitzaizkigun eta, halaxe, aukeratu beharrez, lana luzatu», azaldu zuen herenegun elkarteko ordezkari batek.

Orain salgai dagoen grabazioak 70 minutuko iraupena du, 35 minutuko bi partetan zatitua.

Gastronomia ere bai

Bi bertsolari azaltzen dira bideoan, Sebastian Lizaso eta Xabier Amuriza, eta Lizaso bertan zen herenegungo ekitaldian. Peio García Amiano gastronomoa ere Astigarragako Kultur Etxean zen atzokoan, ez baita ahaztu behar sagardoarekin zerikusia daukan gastronomia ere aztertzen baita bideoan zehar.

Zipotza elkarteko ordezkariak aipatu zuenez, «nahi genuke bideo hauxe izan dadila Astigarragan noizbait egin beharreko Sagardoaren Museo horren lehen urratsa».

HITZ APURRAK

Errazkeriaren aforismoak

JORGE GIMENEZ



1. — Errazegia: indarkeriak eragindako heriotz guztiak berdinak direla aldarrikatzea,

Ordoñezen heriotz (beraz) besteak bezain lazgarritik beste batzueni atera ez zaien etekin politikoa lortzen ahalengitzez batera. Zailagoa: heriotzak berdintzen gaituela sinestea, eta horrek ez duela politikagintzarekin zer ikusirik beti kontutan hartzea. Ez dezatela, alegia, ez hiltzaileek, ez hilotzek, politikarik egin.

2. — Errazegia: indarkeriaren aurka keinutan — imintziotan? — oinarritutako jokabideak — poseak? — proposatzea normaltasun ezaren estetika 'dandy' bat aldarrikatzeko (hori baizik ez baitute egiten Carlos Martínez Gorriaran nire adiskid...